

GURE LURRA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Gipuzkoa Berdea

Elkarrekin jasangarritasunaren bidean



9. ALEA: OTSAILA 2024

AURKIBIDEA



GURE LURRA KONGRESUA
3. Orr.



**XABIER ARRUTI,
LURRALDE OREKA
BERDEKO DIPUTATUA**
6. Orr.

NEKAZARITZA ETA LURRALDE OREKA ZUZENDARITZA	
2024KO AURREKONTUTIK (Kreditu Konpromisoak barne)	
LANGILERIA GASTUAK (% 20)	4.845.375
ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK (% 14)	3.417.174
Albaitari zerbitzuak: Osasun kanpaina, animalien identifikazioa, analisiak, ...	1.669.849
Nekazaritza Politika Bateratuaren (FAC) kontrolak eta kudeaketa	105.000
Eika katearen kontrolak	70.000

2024KO AURREKONTUAK
8. Orr.



**JOKIN PERONA,
OGASUNEKO ETA
FINANTZETAKO FORU
DIPUTATUA**
9. Orr.



**LEHEN SEKTOREAREN
ONDORENGOTZA**
10. Orr.



**HERRI TXIKIETAKO
ETXEBIZITZA PROMOZIOA**
14. Orr.



**ANIMALIEN OSASUNA:
GHE GAITZA**
16. Orr.



HERRITARREN BATZARRA
18. Orr.



**ELIKADURA
JASANGARRIAREN MISIOA**
20. Orr.



**BASERRITAR MISTO
PROFESIONALA**
24. Orr.



GIPUZKOAKO BASOAK
26. Orr.



PARKE NATURALAK
26. Orr.



**BIODIBERTSITATEAREN
MANTENUA ETA BERTAKO
ESPEZIEEN ZAINTZA**
28. Orr.



NIRE ETXETXOTIK
30. Orr.



ALBISTE LABURRAK
31. Orr.

GURE LURRA aldizkaria

ARGITARATZAILEA:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurune eta Natur Ingurune alorra.

Gipuzkoa plaza z.g. 20004, Donostia.

943 112 198 / 943 112 054

ERREDAKZIOA ETA DISEINUA: ARAZI

ARGAZKIAK: Gipuzkoako Foru Aldundia, Unsplash, Pexels.

INPRIMATZAILEA: MICHELENA ARTES GRÁFICAS S. L.

ALE BAKOITZAREN KOSTUA: 1,64 €

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartutako kostua.



La marca de la gestión forestal responsable

Aldizkari hau basoen ustiaketa jasangarriaren bitartez eskuraturiko paperarekin sortua dago.

GURE LURRA 6

Sembrando Futuro

“El equilibrio verde es esencial para garantizar la sostenibilidad del territorio”

Gure Lurra biltzarraren seigarren edizioak lehen sektorea hiri eremura hurbildu du, oreka berdea ardatz hartuta klima aldaketaren, elikadura jasangarriaren eta bizi ohitura osasungarrien oinarri gisa.

Eider Mendoza

Diputada General de Gipuzkoa



Unas 500 personas participaron en la sexta edición del Congreso 'Gure Lurra-Sembrando Futuro', impulsado por la Diputación Foral de Gipuzkoa con el objetivo de servir como punto de encuentro y diálogo entre el primer sector y la población urbana. Con el equilibrio verde como eje vertebrador, la jornada se centró en visibilizar el potencial que tiene el primer sector para hacer frente a la emergencia climática y garantizar el bienestar de Gipuzkoa, y mostrar las oportunidades que presenta la explotación agro-ganadera en lo que respecta a su comercialización en nuevos mercados. Baserritarras, investigadores, agentes sectoriales, representantes institucionales y distintas personalidades de prestigio compartieron con la ciudadanía cuáles son los retos y el papel de este sector desde un punto de vista económico, social y medioambiental.

Eider Mendoza, diputada general de Gipuzkoa, defendió en la apertura institucional del congreso “la necesidad de trabajar por un equilibrio verde” que permita al conjunto del territorio “avanzar en la respuesta al cambio climático, en la alimentación sostenible y en la expansión de hábitos de vida saludables”, desafíos “de enorme calado” ante los cuales reivindicó el papel “protagonista” que debe jugar el primer sector. “Las personas que os dedicáis a la agricultura, a la ganadería o al pastoreo, así como al sector forestal, jugáis

un rol fundamental en Gipuzkoa y en el País Vasco a la hora de producir alimentos KMO, sanos y sostenibles, de cuidar el paisaje y el medio ambiente. No podemos afrontar todos estos desafíos dando la espalda al primer sector, sino valorándolo como se debe y colaborando con todas las personas que trabajan en el mismo”, recalcó.

En palabras de Mendoza, un mundo rural “fuerte, vivo y dinámico” es uno de los “principales activos” que tenemos en Gipuzkoa y en Euskadi para “preservar nuestra cultura, cuidar la naturaleza y garantizar una alimentación sana y sostenible”. Por todo ello, se mostró en favor de “promover el reconocimiento y las condiciones de vida” de quienes se dedican a la agricultura, la ganadería y a la actividad forestal, porque “el futuro de Gipuzkoa y de nuestro pueblo también depende de su contribución”.

La diputada general subrayó el compromiso de la Diputación de “mantener la apuesta por el primer sector” llevada a cabo en las dos últimas legislaturas y hacerlo, además, con la “determinación de activar iniciativas innovadoras”. Entre otras, mencionó como ejemplos la fundación Basotik para evitar el abandono de los bosques e impulsar una gestión sostenible de la superficie forestal, el fomento de la figura del baserritarra mixto-profesional o el impulso al programa Gaztenek para favorecer el relevo generacional en el primer sector.



Carl Honoré

Autor

El aclamado autor y portavoz global del creciente movimiento “Slow Movement”, Carl Honoré (Escocia, 1967) puso de manifiesto la importancia de desacelerar en un mundo que va cada vez más rápido. En su ponencia destacó que bajar el ritmo en el momento oportuno favorece a nuestro bienestar. Honoré también señaló la necesidad de conectar y de acercarnos al ámbito natural. “El medio rural favorece a reducir esa velocidad de vértigo que se vive especialmente en el día a día urbano”, ha subrayado.

Edurne Pasaban

Alpinista

Edurne Pasaban, reconocida alpinista, empresaria e ingeniera industrial. La primera mujer en el mundo en coronar los 14 ochomiles inspiró a las personas asistentes compartiendo su experiencia ante los retos a los que se ha enfrentado en su carrera profesional. Resaltó la importancia de creer en “el talento de cada uno y de la importancia de trabajar en equipo con una visión compartida”, porque “a pesar de que parezca que tenemos un objetivo propio, las personas que hoy participáis en este congreso también tenéis un objetivo común: impulsar, avanzar y visibilizar el primer sector”.

Jardunaldia bi zatitan banatu zen. Hala, lehenengo zatian sektoreko eragileen lana ikusarazi eta balioetsi zen, eta ongizatearen eta klima aldaketaren aurkako borrokaren ikuspegitik eragile horiek gizarteari egiten dioten ekarpena nabarmendu zen.

Bigarren blokean inspirazio gisa, kanpoko merkatuek eskaintzen dituzten aukerak aztertu ziren.



Coloquio sobre: ¿Cómo podemos garantizar la actividad agraria de Gipuzkoa para hacer frente a la emergencia climática? Representantes de la Diputación Foral de Gipuzkoa, Telesforo Monzon eLab y Arantzazulab analizaron las recomendaciones realizadas por las 32 personas voluntarias que están participando en la Asamblea Ciudadana de Gipuzkoa para poder combatir el reto de la emergencia climática desde el primer sector.



Se presentaron las distintas iniciativas puestas en marcha para concienciar y acercar el primer sector a los y las más pequeñas.



Presentación de ejemplos prácticos sobre cómo comercializar los productos agropecuarios en el exterior como el de Imanol Barnecilla, fundador de Zootek.




Coloquio sobre las posibilidades que existen de abrir el producto local a nuevos mercados internacionales.



Xabier Arruti Olazabal
Diputado de Equilibrio Territorial Verde

El Congreso fue clausurado mediante un bertso ofrecido por el diputado de Equilibrio Territorial Verde, Xabier Arruti, quien mostró su firme compromiso por trabajar en el equilibrio territorial verde de Gipuzkoa.



“Seigarren urtez elkartu gara
Ez da hain bide laburra
Baserritarren gaurko egoera
Ez da batere xamurra
Denok guretik jarri dezagun
Bakoitzak dugun apurra
Orekatua eta berdea
Izan dadin gure lurra”

“Gipuzkoako gizartearen kezka nagusietako bat aldaketa klimatikoa da, eta horri aurre egiteko beharrezkoa da gizarte osoak lehen sektorearen alde egitea”

XABIER ARRUTI

Lurralde Oreak Berdeko Diputatua

“Gipuzkoako berdegunearen zaintzaileak gara, lanbide honetan ditugun 12.626 baserritarrekin batera”.

Legealdi honetan, lehen sektoreak departamendu propioa du. Zein eragin izango du horrek?

Handia, espero. Ez da nahikoa esatea sektorea estrategikoa dela. Kasu honetan, Aldundiak lehen sektorea estrategikotzat jo du eta horregatik goratu du departamentu mailara. Horrek dituen eragin nagusiak bi dira: batetik aurrekontuetan igoera izango duela, eta bestetik ez garela nekazaritza departamentua, Lurralde Oreak Berdea departamentua baizik.

Eta zein da aldea? Zein da Lurralde Oreak Berdea departamentuaren berrikuntza?

Gipuzkoarren begietan baserritarren departamentua izan gara beti, eta noski hori horrela dela eta horrela izaten jarraituko du. Baina ez gara hori bakarrik, Gipuzkoako berdegunearen kudeatzaile eta zaintzaileak ere bagara, lanbide honetan ditugun 12.626 baserritarrekin batera. Elkarlanean, Gipuzkoako lurraldearen % 90a ari gara zaintzen, berriro diot, Gipuzkoako lurraldearen % 90a. Basoek Gipuzkoa osoaren % 60 osatzen dute eta larre, baratza eta bestelakoek gainontzeko % 30a. Gipuzkoako lurraldearen kudeaketa hau gipuzkoarrentzat ezkutuan dago, eta bistaratu beharra dago.

Bestalde, gizartearen beharrak eta nahiak asko aldatu dira, eta departamendu honen sorrerak gizartearen beharrei beste era batera erantzutea dakar. Beharbada, lehen baserriak baserrirako kontzeptuan egiten genuen lan, baina egun baserriak gizartera eskeman egin behar dugu lan.

Zergatik ikusten duzu lehen sektoreak ingurumenaren alde egiten duen lana bistaratzearen beharra?

Gipuzkoako gizartearen kezka nagusietako bat ingurumenaren zaintza eta larrialdi klimatikoa direlako, eta horri aurre egiteko beharrezkoa da Gipuzkoako gizarte osoak lehen sektorearen

alde egitea. Jasangarritasuna ardatz hartuta dihardugu lanean, eta elkarlanean burutzen dugun lan hau balioan jarri behar dugu, gipuzkoar guztiak inplikaturik eta beraiek ere eragile bilakatuz. Klima aldaketari guztiok batera egin behar diogu aurre, edo ezinezkoa izango da.

Zein izango da legealdi honetan landuko den bidea?

Norabidea argia da, jasangarritasunaren biderei eutsiko diogu. Lurralde Oreak Berdea departamentuaren ardatzak hiru dira: ingurumen jasangarritasuna, jasangarritasun soziala eta jasangarritasun ekonomikoa. Eta hiru ardatzei eutsiz etorkizunera begira hainbat proiektu estrategiko eta aitzindari ipiniko ditugu martxan.

Ingurumen jasangarritasunari buruz hitz egiten dugunean, natur ingurumena zaindu eta babesteko praktika eta politikez ari gara. Egungo beharrak bete eta etorkizuneko baliabideak arriskuan jarriko ez dituzten erabakiak hartzea dagokigu. Arlo honetan Baserria CO2 xurgatzaile plana, elikadura jasangarria indartzeko lurralde-misioaren garapena, Basabizi zentroa, Gipuzkoako Parketxe Sareak, edo Basotik Fundazioa ditugu. Azken hau, basoen kudeaketa jasangarria bermatzeko eta karbono-isuriak konpentsatzeko sortu dugu.

Jasangarritasun sozialak zer esan nahi du?

Jasangarritasun sozialari buruz hitz egiten dugunean, desberdintasun sozial eta ekonomikoak murriztuko dituzten politikez ari gara. Landa ingurune biziak eta herri txiki dinamikoak nahi ditugu, non belaunaldi berriek ere bere bizitza proiektuak ongizate eta erosotasun osoz eraikiko dituzten. Alor honetan Banda Zabal Ultra Azkarraren (Internetarako sarrera azkarra) hedapena herri txikietan, landa-ingurunean ur edangarria bermatzeko plana, herri txikiak etxebizitza sustapena, baserrietan eguzki-panela ipintzeko proiektua edota baserriak eskualdatzeko planak egingo ditugu.

Eta ekonomikoa?

Epe luzera ongizate ekonomikoa zaindu eta sustatuko duten neurriez ari gara. Lehen sektorearen indar ekonomikoari eutsi eta areagotzeko bideak ipiniko ditugu martxan. Baserritar Misto Profesionala proiektu aitzindaria ipiniko dugu martxan, lehen sektoreko ustiapen eta ekintzen errentagarritasunean sakonduko dugu, eta berrikuntza eta teknologia lehen sektoreara hurbildu, besteak beste. Horiek guztiak, orain arteko ahalegin eta programekin uztartuko ditugu, adibidez, GazteNek proiektuarekin. Azken batean, martxan jarriko diren proiektuak, indarrean daudenen osagarriak eta gehigarriak dira.

Nola ikusten duzu lehen sektorearen etorkizuna?

Lehen sektorea oso gertutik bizi dugu eta badakigu une latzak bizi dituela. Halaber, azpimarratu nahi dut beharrezkoa dela azpisektore bakoitzaren egoera zein den aztertzea. Adibidez, momentu honetan, behi sektorea bizitzen ari den egoera ez da txakolinaren berdina; bakoitzak bere zailtasunak ditu, noski, baina egoera ez da berdina. Hala ere, orokorrean, azpisektore gehienetan egoera oso zaila da. Erronkak beti izango ditugu, baina egungoei aurre egiteko beharrezkoa da sektorea indartzeko tresnak eskaintzea, politika aurrerakoiak eginez.

‘Baserritik gizartera’ kontzeptua aipatu duzu lehen. Zertaz ari zara?

Egun, naturarekiko, landa ingurunearekiko lotura nabarmen ahuldu da, eta ezinbestekoa dugu horri erremedioa jartzea etorkizuneko ongizatea bermatzeko. Baserritarrik gabe, lehen sektorerik gabe, ez baitago elikadura jasangarririk edo oreka ekologikorik. Denen ardura da, beraz, sektorearen oinarriak berritzea, mendeak dituen baserria egungo erronketara egokitzeko eta horien iraupena ziurtatzeko. Halaber, azpimarratzekoa da lehen sektorearen etorkizuna Gipuzkoako azaleraren % 90aren etorkizunarekin lotua dagoela. Hau da, Gipuzkoako gizarte osoak erabaki beharko du zer egin gure mendi eta basoekin, edota gure elikadurarekin. Elikagaiak sortzea eta mendiak zaintzea ez da soilik baserritarren ardura, baizik eta Gipuzkoako gizarte osoaren ardura.

“ Norabidea argia da, jasangarritasunaren bideari eutsiko diogu”.



2024ko aurrekontuak

NEKAZARITZAKO ETA LURRALDE OREKAKO ZUZENDARITZA	
2024KO AURREKONTUTIK (Kreditu Konpromisoak barne)	
LANGILERIA GASTUAK	4.845.375
ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK	3.417.174
Albaitari zerbitzuak: Osasun kanpaina, animalien identifikazioa, analisiak, ...	1.668.849
Nekazal Politika Bateratuaren (PAC) kontrolak eta kudeaketa	105.000
Elika katearen kontrolak	70.000
Hildako animalien bilketa, garraioa eta eraldaketa	500.000
Azoka, erakusketak	45.495
Baserritar Mixto Profesionalak	50.000
Azterlanak	156.345
Gizarteratzea, dinamizazioa	210.754
Besteak	610.731
TRANSFERENTZI ARRUNTAK	11.525.238
Nekazaritza Ekologikoa	400.000
Mendiko Kalteordain Osagarriak (ICM)	3.000.000
Nekazaritza eta Ingurumeneko Neurriak (Agroambientalak)	1.100.000
Etorlur Gipuzkoako Lurra S.A, laguntza teknikoa	665.470
Gazte Plana	1.125.000
Gestio zentruak: Lurgintza, Abelur, Enaro, Ehnelur	425.000
Ordezkapen zerbitzua	152.500
Nekazaritzako Aseguru Polizak	130.000
Landaola Federazioa	557.200
Sektoreko hitzarmenak	1.958.446
Zenbait azpisektoreen berregituraketarako	600.000
Besteak	634.497
INBERTSIO ERREALAK	422.503
Lur funtsa. Landa lur hobekuntzak	58.515
Eskualdeetako Nekazal Bulegoetan hobekuntzak	273.334
Besteak	90.654
KAPITAL TRANSFERENTZIAK	13.668.324
Ustialekuen modernizatorako dirulaguntzak	6.097.385
Ustialekuen modernizatorako dirulaguntzak (aurreko urteetako proiektuak)	2.525.117
Sagardotarako sagarrondoak landatzeko dirulaguntzak	325.000
Landagipuzkoa. Landa bideak egiteko dirulaguntzak	1.300.000
Landagipuzkoa. Landa Garapenerako dirulaguntzak	800.000
Landagipuzkoa. Banda Ultraazkarra	1.300.000
Etorlur etxebizitza sustapena herri txikietan	200.000
Next Generation	562.191
	33.878.614

MENDIETAKO ETA NATURA INGURUNENKO ZUZENDARITZA	
2024 KO AURREKONTUTIK (Kreditu konpromisoak barne)	
LANGILERIA GASTUAK	5.563.948
ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK	1.766.581
Erreten taldeak (Suteen zainketak)	240.000
Pinu beldarraren tratamendua	37.104
Kooperazio proiektuak eta azterlanak	486.212
Basanimaliak errekupeatzeko zentroa	81.000
Iturrarango arboretoaren mantenimendua	70.000
Arrain eta ehiza birpopulaketa eta kudeaketa	95.900
Mendiak hobetzeko ekimen desberdinak	43.000
Baserritar Mixto Profesionalak	50.000
Gizarteratzea, dinamizazioa	175.000
Besteak	625.165
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	1.863.030
Sektoreko hitzarmenak: Baso Elkarte, Mendi Federazioa, Ehiza Federazioa, Arrantza Federazioa, Aranzadi, Geogarapen, Zumaiako Udala...	593.824
Gipuzkoako Parketxe Sarea	540.000
Etorlur Gipuzkoako Lurra S.A, laguntza teknikoa	105.000
Kimuberritu	200.000
BSTK (Basotik)	436.173
Besteak	136.366
INBERTSIO ERREALAK	1.612.567
GFAren jabetzako mendietan hobekuntzak	160.000
Udalen mendietan hobekuntzak: larreen hobekuntza (goilarre), basolanak, bideak, mugarriztatzea, Parkeetara paseoak...	1.255.692
Besteak: Basanimali eta landare kontserbazioa, ibilgailuak, makineria...	196.875
KAPITAL TRANSFERENTZIAK	3.561.132
Partikularren basoak zaindu, hobetu eta ugaritzeko dirulaguntzak	3.275.753
Partikularren basoak zaindu, hobetu eta ugaritzeko dirulaguntzak (aurreko urteetako proiektuak)	1.493.734
Landa Lurren digitalizazioa	379.590
Zarauzko udala, Inurritzako pasabidea	100.000
FINANTZA AKTIBOAK	1.600.000
BSTK FUNDAZIOA	1.600.000
	17.940.336

Gipuzkoako Foru Aldundiak nekazarien eta abeltzainen jarduerari laguntzeko neurri fiskalak hobetu ditu 2023ko errenta kanpainari begira

Gipuzkoako Foru Aldundiak nekazarien eta abeltzainen jarduerari laguntzeko neurriak onartu ditu foru-arau proiektu baten bidez. Zehazki, justifikatzen zailak diren gastuei buruzko kopuruak handitu (forfait deritzona) eta ondorioz ordaindu beharreko zergak murriztu dira.

Forfait hori 2020an onartu zen lehen aldiz, eta zerga-murrizketaren ehunekoak handitu dira 2023ko errenta-kanpainari begira. Horrela, 30.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituztenen kasuan, justifikatzen zailak diren gastu horien zerga murrizpena % 75etik % 90era igotzen da, eta 30.000 eurotik gorako diru-sarreraren kasuan murrizpena % 35etik % 70era pasatzen da.

Neurri berri horiek azken bi urteetan lehengai batzuen (pentsua edo alpapa deshidratatua esaterako) prezioen goranzko bilakaera kalkulatu ondoren hartu dira. Kalkulua egiteko, Euskal Nekazarien Batasunak, Gipuzkoako Baratzezainen Elkartek, HAZI Fundazioaren Behatokiak eta Abelur Kooperatibako baserritarrek emandako informazioa erabili da iturri gisa

«Badakigu nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreko lehengaien prezioak nabarmen igo direla, egungo ziurgabetasunez betetako nazioarteko testuinguru makroekonomikoaren eta horren ondoriozko inflazioaren ondorioz». Ildo horretan, Jokin Perona Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak aparteko neurriak aplikatzeko beharra defendatu du. «Lehengaien prezioen igoera horrek sektore horien lan-baldintzak estutzen jarraitzen du, eta Gipuzkoako Foru Aldunditik gure babes eta errekonozimendua helarazi nahi diegu egiten duten lanari». Peronak gaineratu duenez, «salbuespenezko egoera baten aurrean, herritarren ongizatea babesteko tresnak eskaintzea da gure konpromisoa». Horrela, onartutako neurri-sorta horrek milioi bat euroko eragin positiboa izango du lehen sektorean. Nekazarien eta abeltzainen kasuan, inflazioa % 3,4koa izan da 2023an. Neurri horiekin, batez beste, % 16,1 murriztu da zerga, eta zerga-jaitsiera inflazioaren igoera baino nabarmenagoa izan da.

Aipatutako neurriez gain, Ogasun eta Finantza departamentua Euskal Nekazaritza Batasunarekin (ENBA) eta lehen sektoreko beste eragile batzuekin batera ari da lanean azken urteotan. Besteak beste, 2016tik aurrera hainbat neurri onartu dira Gipuzkoan «gure fiskalitatea sektorearen berezitasunetara egokitzeko» adierazi du Peronak. Hala nola, 2016an ustiategi txiki eta handien artean egindako aldaketa (30.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituztenak) edo nekazarien eta abeltzainen jarduera hurrengo belaunaldietara bideratzean sortzen diren zerga-kargak malgutzea.



Jokin Perona

Ogasuneko eta Finantzetako Foru Diputatuak

Zein da neurri hauen eragina (forfaitarenak)?

Adibide bat jartzearen, 30.000 euroko diru-sarrerak dituen norbaitek % 90eko murrizpena aplikatzen badu, 3.000 euroko etekin garbia geratzen zaio, eta beste sarrerarik ez badu, 3.000 euroko oinarrik likidagarriatik, onartutako neurriaren ondorioz, ez du zerga ordaintzen, lehen % 75eko murrizpenarekin 181 euro ordaintzen zituenean. Beraz, bere zerga karga 181 eurotan jaisten da.


Aldiz, 60.000 euroko diru-sarrerak dituen norbaitek % 70eko murrizpena aplikatzen badu, 18.000 eurotako etekin garbia geratzen zaio, eta beste sarrerarik ez badu, 18.000 euroko oinarri likidagarriatik 2.632 euro ordaintzen ditu. Lehen % 35eko murrizpenarekin 8.823 euro ordaintzen zituenean. Beraz, bere zerga karga 6.191 eurotan jaisten da.

Zer egin behar dute forfait hauek jaso ahal izateko?

Nekazaritza eta abeltzaintzari loturiko jarduera garatu beharra dago eta zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuan etekin garbia zehaztea. Hau aukera 036 ereduaren bidez egiten da.

Informazio gehiago Gipuzkoako ogasuneko webgunean dago:

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna/zergak/zentsu-aitorpena/errolda-datuak>



Baserriko erreleboa bermatzeko 'Trebatu' ekimena martxan jarri nahi da

Aldundiak, Gipuzkoako landa garapen elkarteekin elkarlanean, beste urrats bat emango du 2024 urtean baserrirako bidea leuntzeko.

Gipuzkoako Lurralde Oreka Berdearen erronka argia da: lehen sektoreak erreleboa hartuko duten gazteak behar ditu. Erronka honi aurre egiteko zailtasun nagusiena ustialeku bat martxan jartzeko garaian burutu beharreko inbertsioak dira. GazteNek programak oso ondo erantzuten dio behar honi, lehen inbertsioetarako laguntza ekonomikoa eskaintzeaz gain 5 urteko aholkularitza jarraitua eskainiz. GazteNek programaren emaitzak positiboak dira, 2004etik 329 gazte erakarri baititu lehen sektorera, eta orain baserriko jardueren hastapen prozesuan beste bultzadatxo bat eman nahi da, horretarako, 'Trebatu' ekimena ipiniko da martxan.

Trebatu Programaren bitartez lehen sektoreko jarduera batean lanean hasi nahi duen gazteari ofizioa ezagutzeko beharrezkoak dituen azpiegiturak (baserria, ikulua, baratzea...) jarriko zaizkio eskura eta honekin batera 588 ordutako formazio praktiko-teorikoa eta aholkularitza tekniko-ekonomikoa emango zaizkio Trebatu Programak irauten duen bi urteetan zehar. Formakuntza hau lan kontratu baten bidez araututa egongo da eta programan parte hartzen duten gazteek hileroko soldata bat jasoko dute bi urtez. Gipuzkoako Landa Garapen elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Abeluar, Lurgintza, Hazi Fundazioa eta Lanbide elkarlanean lantzen ari garen ekimena da Trebatu eta hiru helburu nagusi ditu:

1. Nekazaritzan hasi nahi dutenei, etorkizunean garatu nahi duten landa proiektua maila teorikoan lantzeko aholkularitza eskaintzea eta **maila praktikoan proiektua garatzeko espazioa eskaintzea**.
2. Lehen sektoreak beharrezkoa duen belaunaldi erreleboa bermatzea.
3. Tokiko elikadura ekoizpena bultzatzea.

Helburu hauek lortzeko, **bi Trebagune** mota garatuko dira:

Alde batetik **Aldi Baterako Trebaguneak**. Hau da, martxan dauden baserriak identifikatuko dira eta jarraipena emateko lanketa burutuko da beraiekin. Aktibitate ekonomikoa gainbeheran hasi aurretik edo bertan behera geratu aurretik, erreleboa eman diezaioken pertsona batek trebatzealdi baten ondoren jarraipena eman diezaion, esku hartze neurtu eta seguru bat posible izan dadin.

Bestetik, **Trebagune Iraunkorrak**. Kasu honetan, Aldundiko lur funtsaren bitartez, nekazaritzarako egokitutako espazioak sortuko dira, bertan trebatzealdi bat egin nahi duen pertsona horrek bere lan eta formakuntza egin dezan eta hori egin ondoren behin betirako izango litzatekeen beste leku batetan bere ustiakuntza martxan jar dezan.

'Trebatu' ekimena hastapen fasean dago, 2024. urtean ipini nahi da martxan. Orain, errelebo faltan dauden baserritarren eta erreleboa eman dezaketen interesatuen bila dabilta proiektuaren arduradunak. Interesik izanez gero eta informazioa eskuratzeko landaola@landaola.eus helbidera idatzi.

“ Ekimenaren garrantzi estrategikoa azpimarratu du Xabier Arrutik: “Baserritarrik gabe, lehen sektorerik gabe, ez dago elikadura jasangarririk edo oreka ekologikorik, ezinbestekoa da erreleboa ziurtatzea”.

Gipuzkoako 23 gazte hasi dute bidea lehen sektorean aurten Aldundiaren babesarekin.

GazteNek programak 2004etik 329 gazte erakarri ditu lehen sektorerara. Aurtengo deialdiak 23 gazte onuradun izan ditu, 7 emakumezkoak dira eta 16 gizonezkoak. Proiektuen jarduerari dagokienez, baratzagintza eta haragi-behiak dira nagusi, baina erlezaintza, basogintza eta mahastigintza ere badira.



Iosu Artola

Zuitza baserria
(Amezketeta)

“Batetik, Basatxerri Kooperatibako sozio gara eta txerri gizenketa egiten dugu. Bestetik, pirenaika arrazako behiak ditugu eta txekorren gizenketa egiten dugu, haragi loteekin zuzeneko salmenta eginez.

GazteNek bezalako laguntzak oso garrantzitsuak dira guretzat. Egun, sektorean dugun egoerarekin oso zaila egiten zaigu bertatik bizi eta horretara pauso bat ematea. Halaber, interesgarria izango litzateke proiektua zerotik hastean ere laguntza moduko bat izatea, bestela ezinezkoa da”.



Agurtzane Gabiria

Makatza baserria (Legazpi)

“Makatza baserrian kokatzen den egungo jarduerarekin jarraitzea da nire helburua. 250 animalia inguruko ardi latx mutur beltz artalde bat daukagu, eta bertatik lortzen dugun esnearekin Idiazabal gazta egiten dugu.

GazteNek programak ekonomikoki bultzada bat ematen laguntzen dizu hasiera batean. Proiektua gauzatzeko tutore bat izateak ere asko laguntzen digu gure errealitatea ikusten eta enpresa plana gauzatzen”.



Alba Aristi

Baso Beltz baserria
(Zarautz)

“Ustiategi familiarraren laugarren belaunaldia naiz, eta, barazki eta frutak ekoizti eta saltzen ditugu.

GazteNek bezalako laguntzek lasaitasun ekonomikoa ematen dute. Sektorea dagoen bezala egonda, bultzada ekonomikorekin, sartzan diren ordu estra horiek ez dira hain gogorak. Halaber, mota honetako laguntzak oso garrantzitsu eta beharrezkoak dira, bestela, zein izango da baserrien, ganaduen, abeltzainen ... etorkizuna? Gure kulturaz hitz egiten gabilta, nondik datoz gure betiko jakiak? Hala nola, arto irina, babarrunak, lekak, tomateak, txuleta, gazta... Ekoizlerik gabe, hauentzat etorkizunik ez”.



Elisabeth eta Maddalen Odriozola
Pelegriñene baserria
(Donostia)

“Gu bi ahizpa gara, Elisabet eta Maddalen, eta Pelegriñene baserriko ustiategiaren erreleboa hartzea da gure proiektuaren funtsa. Bertan, nagusiki tomatearen ekoizpenean egiten dugu lan.

Ezin da ukatu GazteNek laguntza ekonomikoa garrantzitsua dela. Baina horretaz gain, GazteNek-en sartzearekin batera monitore bat ezartzen zaigu. Honek eduki ditzakegun zalantza guztietan laguntzen digu, aholkularitza emateaz gain, eta prozesu guztiaren jarraipena egiten du. Beraz, atzean dauden giza baliabide guztiak jarriko nituzke balioan. Izan ere, gure lana batzuetan bakarti samarra da, eta atzean laguntzeko prest dauden pertsona eta erakundeak daudela jakitea garrantzitsua eta lagungarria da egunerokoan lanean jarraitzeko”.



Joseba Mokoroa
Mokoroa Txakolindegia
(Zarautz)

“Zarauzko Urteta auzoan kokatutako ustiategian 7 hektarea ditugu txakolinari zuzenduak. Prozesu osoa egiten dugu, mahastitik hasi eta txakolin bilakatzeraino.

GazteNek laguntzari esker, belaunaldi aldaketa egiten lagundu digute. Halaber, egin behar izan ditugun formakuntzatan sektoreko beste hainbat gazte ezagutzeko aukera izan dugu eta beraiekin esperientziak trukatzeko oso aberasgarria izan da.

Ingurunea zaindu nahi badugu, beharrezkoak da etorkizunean lurra landuko duten pertsonak izatea, eta gazteak nekazaritza eta abeltzaintzan txertatzea nahi badugu, beharrezkoa da erakundeek hauei bultzada bat ematea”.



Jesus Martínez
Bemendi proiektua
(Legazpi)

“Bemendi proiektua, larretan bakarrik elikatutako haragitarako behiak dira, pentsurik gabe.

GazteNek bezalako programak funtsezkoak dira, are gehiago belaunaldi-erreleboa ez garen kasuetan. Halaber, ekoizleen arteko loturak sortzeko ere balio digute, esperientziak eta ereduak partekatzeko eta kontrastatzeko”.





Luis Berrondo

Errezilgo Ibarbi Sagarra
Kooperatiba (Errezil)

“Errezilgo Sagarrak Errezil herriarentzako izan duen eta gaur egun ere duen garrantzia ikusirik, berau ezagutzera eraman eta indartzeko sortutako egitasmoa da Ibarbi Errezil Sagarra Kooperatiba.

Landan Ekin sariek aukera eman digute gure proiektuaren jarraipen bat izateko, bidea bakarrik ez egiteko, eta horrek erakusten digu benetako interesa dagoela honen atzean. Sariak beti dira motibagarriak eta aurrera egiteko animoak ematen dituzte, baina jakitea zure proiektuak jarraipen bat izango duela, eta hor interes bat dagoela, oso garrantzitsua da.

Sari mota hauek garrantzia handikoak dira guretzat, eta formatua errepikatu egin beharko litzatekeela uste dut. Beste ekintzaile batzuk ezagutzea eta ideiak eta dakizun hori partekatzea ezinbestekoa da aurrera egiteko”.

Landan Ekin: Bide berriak jorratzeko deia

Ana Mari Eizagirre, Landaolako lehendakaria: “Landa eremuan ekintzaitza, sorkuntza eta elkarlana bultzatzeko dinamikak sortu nahi dira”.

Landan Ekin izeneko egitasmo berria sortu du Landaolak, Gipuzkoako Landa Garapen Elkartearen Federazioak, hainbat erakunde eta eragileren laguntzarekin, landa eremuan ekintzaitasuna, elkarlana eta ko-sorkuntza bultzatzeko helburu nagusiaren baitan, aktibo horiek indartuko dituzten ekintzak eta proiektuak hauspotzeko. Landan Ekin-en bitartez, landa ingurunearen dibertsifikazioan eta enplegu sorreran sakontzeko zein lehen sektorea indartzeko helburuan aurrera egin nahi da, elkarlana, jasangarritasuna eta berrikuntza oinarri izango dituzten proiektuak sustatuz.

“Lehiaketa bat baino haratago”

Landaolako lehendakari Ana Mari Eizagirrek azpimarratu duenez, “Landan Ekin egitasmoa, sari lehiaketa bat baino haratago doa; landa eremuan ekintzaitza, sorkuntza eta elkarlana bultzatzeko dinamikak sortu nahi dira. Horrela, lehen sektorean eta elikadura balio kate guztian zehar ekintzaitasuna, barne ekintzaitasuna eta elkarren arteko sinergiak eta proiektuak garatzea izango da egitasmo honen helburu nagusia”.

Lurralde Oreka Berdeko diputatu Xabier Arrutik, berriz, adierazi du “lehen sektorean ere, profesional kualifikatuak, talentudunak eta prestatuak” behar ditugula “sektoreak dituen eronka estrukturaleri aurre egiteko. Haize berria eta begirada berri bat ekartzeko, aukera berriak sortzeko. Asko hitz egiten dugu belaunaldi aldatetaz; bistakoa da zahartze prozesu bat bizi dugula, eta gure baserritar asko adinean gora doazela. Baina ezin dugu gaztetze prozesu hutsarekin konformatu. Lehen sektoreak ez du errelebo soil bat behar, bere etorkizuna bermatuko duen eraberritze sakon bat baizik. Eta horretarako abiapuntua pertsonak dira, bikaintasuna, elkarlana eta esperientzia uztartuko dituzten pertsonak”.



Landa eremuko udalerrietako despoblazioari aurre egiteko, Aldundiak eraikinak birgaitzearen eta etxebizitza berriak sortzearen aldeko apustua egin du

Lehentasunez jardun beharreko 14 udalerrri hauteman dira: **Abaltzisketa, Albiztur, Alkiza, Amezketza, Beizama, Bidania-Goiatz, Elduain, Errezil, Gaintza, Gaztelu, Larraul, Lizartza, Orendain eta Orea.**

Gipuzkoan 88 herri daude eta horietatik 48 herri txikiak dira, hau da, 2.500 biztanle baino gutxiago dituzten herriak dira. Gipuzkoako lurraldearen lur-eremu zabalena landa eremua da eta bertan kokatzen diren herri txikiak Gipuzkoako udalerrien erdiak baino gehiago dira. Hala ere, Gipuzkoako biztanle guztien %5,5a soilik bizi da herri txikietan. Hori gutxi ez balitz, datuek diote urtez urte herri txiki batzuk biztanleriaren jaitziera jasan dutela hainbat arrazoiengatik: biztanleriaren zahartzea eta jaiotze tasa txikia, besteak beste. Lan adinean dauden biztanle askok eskualdetako hiriguneetara jotzen dute bertako etxebizitza merkatua eta zerbitzu eskaintzak direla eta. Kasu batzuetan, herri txiki eta landa ingurueta etxebizitzak asteburu eta oporretako etxebizitza bihurtzeko arriskuan daude.

Gaur egun, etxebizitza eskari handiena hiriguneetan eta udalerrri handienetako herriguneetan pilatzen da. Hor, etxebizitza eskaintza ugaria da: bai bigarren eskuko etxebizitzena bai eraikin berriena. Aldi berean, esan liteke desoreka horren arrazoi nagusienetako bat herri txiki eta handien arteko zerbitzuen eta azpiegituren arrakala dela.

Jakina da, herri txikietako udal askok bere eguneroko jardueratan aurrera ekiteko giza baliabide urriak dituztela. Euren Udalen estruktura mugatuak dira eta horrek hainbat jarduera garatzeko oztopoa suposatzen du. Giza baliabide urritasunari finantza-iturrien eta baliabide ekonomiko dagozkien zailtasunak gehitu behar zaizkie. Horrek guztiak, aipatu moduan, herrian egon litezkeen beharrei erantzuteko jardueren exekuzioa zailtzen eta mugatzen du.

Jakina da inbertsore eta ekintzaile pribatuek etekin ekonomikoa izango denaren ziurtasunik gabe ez dutela inolako ekintzarik garatzen, ezta etxebizitza sustapen kasutan. Hutsune hori betetzeko ezinbestekoa da erakunde publikoetatik erantzutea. Etxebizitzaren gai honetan, ekimen pribatutik sustatuko ez den hori Etorlur sozietate publikoaren eskutik aurrera eramango da.



Proiektuaren helburuak

Gaur egun, lurralde jakin bati eragiten dioten hainbat erabaki hartzerakoan, ezinbestekoa da lurralde orekaren ikuspegia kontuan hartzea. Hori dela eta, Aldundiaren lehentasuna da lurralde sistema deszentralizatu baten bidez lurralde oreka sustatzea.

Lurralde orekatuak eta berdeak, kasu honetan biztanlea lurralde batean zehar modu homogeneo batean sakabanatzeak, berebiziko garrantzia du, besteak beste, lehenengo sektorearen garapenari, ingurumenaren zaintzari, paisaiaren mantenuari, kultur aniztasunari eta ekonomiaren dibertsifikazioari dagokionez.

Horretarako, derrigorrezkoa da biztanleria Gipuzkoan zehar sakabanatuta dauden herri txiki horietan finkatzea eta elkarrekintzak sustatzea herri txikietan dauden gabeziak asetzeko: zerbitzuak (eskolak, osasun-zentroak), enpresa berrien sorrerarako laguntzak, aisialdirako aukerak, oinarrizko hornidurak (baserri bideak, ur edangarri eta publikoa, argindarra, banda zabala, etab.), eta, oinarrizkoetatik oinarrizkoena, etxebizitza eskaintza.

Aurrekoa kontuan hartuz, lurralde oreka bermatzeko populazioaren sakabanaketa homogeneoa beharrezkoa bada, populazioa lurraldean zehar finkatzeko etxebizitzaren eskaintza handitu beharra dago, zehazki, herri txikietan eta landa eremuetan.

Etxebizitza hauek libreak izango dira, jabetzan, baina babestutako etxebizitzaren prezio antzekotasunarekin.

Sustapenak egiteko herrien lehen aukeraketa

Aurrez esandakoari jarraituaz eta 1.000 biztanle arteko langa kontutan hartuaz, ekimenak egin daitezkeen Udalerrien lehendabiziko zerrenda osatu du Etorlurrek, Aldundiako Lurralde Oreka Berdea departamenduarekin batera. Kasu bakoitzeko egoerak aztertuta eta exekuzio aukerak baloratuta, irekia den zerrenda horretan hurrenkeran jarriko dira libre modukoak izango diren etxebizitzak egiterakoan.

Etxebizitza horien sustapenen helburu nagusia da bertako biztanleak euren jaioterritan finkatzea, eta bigarren maila batean, kanpotik etorri daitezkeen biztanleak erakartzea. Horrela, biztanleen arteko kohesioa eta gizarte- harremanak areagotzen lagunduko du, eta datozen belaunaldikoek etxebizitza aukera izango dute jaio diren herri horretan.

Proiektuaren egungo egoera

Hautatutako udalerrien beharrak ezagutu eta herri txiki hoietako aukerak zein diren aztertzeko, Aldundia eta Etorlur, herri txikietako udal-ordezkariekin biltzen dabiltza.

Era berean, Abaltzisketa eta Beizaman dagoeneko martxan daude etxebizitza sustapen bana.

Abaltzisketan, Azpikoetxen, jabetza-erregimenean eskainiko diren 5 etxebizitza sustatuko dira. Birgaituko den eraikina kokatzen den orubea dagoeneko erosi da eta beharrezko baimenak lortu ondoren, lanak esleitzea eta 2024an berreraikitze lanetan hastea aurreikusten da. Aipatzekoa da, orube berean beste etxebizitza eraikin bat sustatuko dela beste 5 etxebizitzekin.

Beizamaren kasuan, hirigunean dagoen Etxebeste baserria birgaituko da. Dagoeneko abian daude eraiste-lanak eta Etorlurrek 4 edo 5 etxebizitza libre eraiki eta jabetza-erregimenean eskainiko ditu.



Jon Zubizarreta, Abaltzisketako Alkatea, eta Joseba Elosua, Etorlurreko Gerentea, Abaltzisketako etxebizitza sustapenaren hitzarmena sinatzen.

Behien gaitzari aurre eginez

Ustiategietan izandako kalteak eta hildako abelburuak konpentsatzeko 1.100.000 euro bideratu ditu Aldundiak

Gaixotasun Hemorragiko Epizootikoa (GHE) infekzio bektorialeko gaixotasuna da, intsektuen bidez transmititzen dena, eta bereziki oreinei -modu ez oso larrian- eta abelgorriei eragiten die. Intsektuen ziztada baten bitartez zabaltzen da gaixotasuna eta ez du gizakiengan inolako eraginik, ez zuzenean ezta elikagaien bitartez ere.


Irailaren 5ean detektatu zen lehen aldiz birusa Gipuzkoako behietan, eta gaixotasuna azkar hedatu zen lurralde osora. Ezin aurreikusizko portaera izan zuen; izan ere, eskualde batzuetan lehenengo asteetan ez zen batere kasurik antzeman eta egun gutxitan ikaragarri ugaldtu zen. Iraila eta urria izan ziren hilabete zailenak, "olatu" handienak orduan izan baitziren, eta urri bukaeran, euria iritsi eta tenperaturak jaitsi zirenean, egoera hobetuz joan zen, nahiz eta gora-behera batzuk izan ziren. Gipuzkoan 900 ustiategi baino gehiago izan dira kaltetuak, estimazioen arabera.

Aldundiak, sektoreko eragileekin elkarlanean, (Abelur, Lurgintza, ENBA, EHNE, Blonda, Terreña, Lomusin, GIFE, Gitxegi eta Abere Albaitariak) izan diren kasuen jarraipen zehatza egin du, ondorioak aztertuz eta horiei aurre egiteko neurri desberdinak hartuz. Abeltzainek sintomaren bat somatu orduko albaitariak jakinaren gainean jarri dira kasu bakoitzari zegokion tratamendu eta zaintza ezartzeko.

Laguntzak

GHE gaixotasunak abeltzaintzaren sektorean izandako eragina arintzeko Aldundiak hainbat laguntza mota ezarri ditu:

- Abelgorrien larrialdiko tratamendurako erabilitako medikamentuen kostua bere gain hartu du.
- 1.100.000 euroko laguntza plazaratu zuen gaixotasunaren ondorioz hildako animalientatik eta jardueraren errendimenduan izandako eraginagatik konpentsatzeko.



“ Jakitun gara sektorea jasaten ari den egoera oso gogorra dela, eta aurretik ere oso erronka handiei aurre egin beharrean zegoela, gainera. Pandemian sektore kaltetuenei premiazko laguntzak eman genizkien bezala, orain ere konpromiso osoa dugu Gipuzkoarentzat eta gure ekonomia, paisaia eta orekarentzat funtsezkoa den jarduera hau zaindu eta babesteko” .

Xabier Arruti Olazabal
Lurralde Oreka Berdeko Diputatua

Iñaki Odria

Azpeitia

“Haragitarako behiak ditut eta GHE gaitzak oso gogor eragin digu. Momentu oso txarrak pasa ditugu. 120 burutik 85ek pasa dute gaitza eta horietatik % 35 larri eta % 8 oso larri egon dira. Halaber, zenbait abelburu galdu ditugu. Gaixotasunaren ondorioak zein diren ez dakigu, baina badirudi momentuz nahiko ondo errekuperatzen ari direla abelburuak.

Aldundiak plazaratu dituen laguntzak beharrezkoak izan dira aurrera egiteko, izan ere, gaitzak eragin dituen gastuak izugarrikoak dira. Asko eskertzen dut Aldundiak bere partetik egin duen esfortzua.

Ez dakigu etorkizunean zer gertatuko den gaitz honekin, animaliek immunitatea lortuko duten esperantza dut”.

Izaskun Aizpurua

Urnieta

“Esnetao behiak ditut eta behi gaitzak izugarriko astindua eman digu, bai guri eta baita sektoreko abeltzain gehienei. Guk bi behi galdu ditugu eta 20 abelbururi gaixotasuna diagnostikatu diogu. Esne galera handia izan dugu eta oraindik ez dakigu zeintzuk izango diren benetako ondorioak”.



Herritarren Batzarrak eginiko gomendioak betetzeko bidea hasi du Aldundiak

Foru erakundeak nekazaritza eta klima aldaketari buruzko hainbat konpromiso hartu zituen, hala nola baserriar misto profesionalen figura bultzatzea edota oreka berdeari buruzko erreferentzia zentroa sustatzea.


Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatzen duen Herritarren Batzarrak nekazaritza eta klima aldaketari buruzko bederlatzi gomendio egin zizkion foru erakundeari, eta erantzun gisa, Aldundiak hainbat konpromiso hartu ditu, esaterako, baserriar misto profesionalen figura bultzatzeko proiektu esperimentala martxan jartzea, edota nekazaritza eta klima aldaketa uztartuko dituen erreferentzia zentroa eratzea. Azaroaren 15ean ospatu zen itzultze-saioan jakinarazi zenez, foru gobernuak ia 2 milioi aurreikusi ditu 2024ko aurrekontuetan Herritarren Batzarrak aurkeztutako gomendioak gauzatzen hasteko, eta espero du datozen bost urteetan 13 milioi bideratzea orotara bederlatzi gomendio horiek ezartzeko.

“ Prozesu aitzindari eta berritzaile honen bitartez, zozketa bidez aukeratu diren 32 herritarrek, nekazaritza jarduera eta klima aldaketa bezalako gai publiko garrantzitsuen gaineko deliberazioan parte hartzen ari dira modu zuzenean.”

Eider Mendoza
Diputatu Nagusia



Xehetasun guztiak jasotzen dituen dokumentua:



Bederatzi gomendioak, Aldundiak harturiko konpromisoak eta epeak:

Herritarren Batzarraren Gomendioak	Aldundiak hartutako konpromisoak	Epeak
1. Landa eremuko jabeen konpentsazio ekonomiko bat itzuli zerbitzu ekosistemikoetan dituzten ekarpen kopuruaren arabera eta gizarteari balio hauek zabaldu.	<ul style="list-style-type: none"> Gaia ikertu eta sentsibilizazio lana martxan jarriko da. Zerbitzu Ekosistemikoen inguruko azterketa burutuko da. Hobari fiskalak aztertzeke lan-dinamika bat jarriko da martxan. Sentsibilizazio eta gizarte-inplikazio ekintzak areagotuko dira. 	2023-2027
2. Baso kudeaketa sustatu, I+G bitartez, sektore estrategikoa bihurtuz	<p>Basoak mantendu eta indartzeko ekimenak burutuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikerketa aplikatuko plana diseinatuko da. Baso kudeaketaren izaera estrategikoa araudietara eta adierazpen publikoetara eramango da. Baso jabeekin harremana estutuko da. Zerbitzu ekosistemikoen jabeen ematen dizkieten onura ekonomikoak laburbilduko dira BSTK Basotik Fundazioaren bidez. 	2024-2027
3. Lehen sektorea estrategikoa bihurtzea, balorazio ekonomikotik ekosistemikora igaroz, tartean diren eragileen parte-hartzearen bidez.	<p>Lehen sektoreak politika publikoan duen zeregina indartzeko eta gizarteratzeko konpromisoa hartu da:</p> <ul style="list-style-type: none"> Gaur dauden mahai ezberdinak batu eta indartzearen alde lan egingo da. Balio estrategikoa handiko lurzoruen alde lan egiten jarraituko da. Gipuzkoan Oreka Berderako Erreferentzia Zentro bat bultzatuko da, lehen sektorearen eta ingurumenaren arteko elkargune izango dena. 2 milioi euroko aurrekontua izango luke proiektuak, eta 2026 urtean garatuko litzateke. 	2023-2027
4. Gizartea haurtzarotik kontzientziatzea eta sentsibilizatzea, nekazaritzaren eta klima aldaketaren erlazioari dagokionez.	<ul style="list-style-type: none"> Erakunde arteko lankidetzak indartzearen alde egingo da. Gizarteari begira, hedabide eraginkorra sortu eta erabiltzearen alde egiten da: Gure Lurra aldizkaria, Gure Lurra kongresua, Parketxe Sarearen dibulgazio lana, Gabonetako kanpaina edota foru erakundeak ETBekin dituen konpromisoak. 	2023-2024
5. Lehen sektorea gaztetzeko neurriak aztertzea.	<ul style="list-style-type: none"> Aplikazio informatiko eraginkor bat diseinatuko da, lurzoruaren eskaria eta lurzoruaren eskaintza errazteko. Zuntz optikoa hedatzen jarraituko da landa gunean. Gaztenek Berri eta Trebatu laguntza programak indartuko dira. Zerga-onurak aztertuko dira. 	2023-2027
6. KM.0 produktuak sustatzea lehenengo ekoizpen-fasetik.	<ul style="list-style-type: none"> Etorkizuna Eraikizun aterkipean, elikadura jasangarriaren inguruko misioa bultzatzen ari da. Gipuzkoak 2040an elikadura-sistema jasangarri, osasungarri, irisgarri eta lehiakorra izanteko, tokiko ekoizpen-gaitasuna maximizatuko duena eta kontsumo arduratsua sustatuko duena, lurraldearen kultura eta nortasuna proiektatuz. Gainerako erakundeekin elkarlana hobetuko da: Gipuzkoako Azokan Sarea indartu, tokiko elikagaiak eskaintzeko Aldundiak antolatutako cateringetan, eta kudeatzen dituen baliabide guztietan KM0 produktuak sustatzeko neurriak hartuko dira (egoitzak, jantoki kolektiboak...). 	2023-2025
7. Nekazaritza ekologiko estrategikoa sustatzea, lehiakortasuna, produktibitatea eta merkaturatzea handitzeko erakunde bat sortuz/zabalduz	<ul style="list-style-type: none"> Ekolurra eta Biolur eragileen bitartez, Herritarren Batzarrak egiten dituen proposameneko funtzioetako asko betetzen ari dira. Sustapenerako diru laguntzak eskaintzen jarraituko da. 	Gauzatzen ari dira eta jarraipen konpromisoa dago
8. Tokiko produktua sustatzea, hobari fiskalak egokituz.	<ul style="list-style-type: none"> Tokiko produktuak sustatzeko hainbat neurri aztertuko dira: hobari fiskalak, laguntza ekonomiko gehigarriak, kontsumitzaileentzako bonuak ... 	2024-2025
9. Baserri misto profesionala sustatzea.	<p>Gipuzkoan etorkizunean landa-jarduera izaten jarraitzeko ezinbesteko neurria izango da.</p> <ul style="list-style-type: none"> Proiektu pilotu bat martxan jarriko da, 5 urtetan luzatuko dena. Urtero diru laguntza deialdi bat burutuko da. Diru laguntza deialdia enpresei eta baserriar mistoa izateko prest dagoen langileari zuzenduko zaio. Helburua urtean 30 langilera iristea da, 5 urtean 150 langile baserriar misto profesional programan izateko. Urtero 1,8 milioi euro bideratuko dira. 	2023-2028

Elikadura Jasangarriaren misioa

2040an, Gipuzkoak elikadura-sistema iraunkorra, osasungarria, eskuragarria eta lehiakorra izango du, tokiko ekoizpenaren potentziala maximizatuko duena eta kontsumo arduratsua sustatuko duena, lurraldearen kultura eta nortasuna proiektatuz.

Mundu mailan sorturiko erronka nagusietako bati erantzunez, Aldundiak sustatuta, elikadurarekin loturiko hainbat eragile buru-belarri dabilta gipuzkoarron etorkizuneko elikadura jasangarriaren ezaugarri egokienak zehazten eta hura lortzeko jarraitu beharreko urratsak aurreikusten. Elikadura Jasangarriaren Misioa, Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz programaren baitan kokatzen da, eta horren ardatz kudeaketa, sozializazioa eta komunikazioa dira.

Bere horretan, eta Gipuzkoaren berezko ezaugarriak kontuan izanda, helburuak zehaztu dira eta 2023an xede horiek lortzeko hainbat pausu eman dira:

- Misioa lortzeko zehaztu diren helburuak, helburu espezifikoagoetan zehaztu dira.
- Helburuak lehenetsi dira.
- Elikadura Jasangarriaren Misioa lortzen lagunduko duten proiektuak identifikatu dira eta 4 urtetako ibilbide orria landu da.
- 2024 urtean, identifikatutako proiektuak gauzatzeko finantziarioa bermatu da, martxan jartzeko.



Elikadurari dagokionean Gipuzkoaren berezitasunak:



Erreferentia da gastronomiaren munduan

Michelin izarrak, industria...



Gastronomiari loturiko kultura aberatsa



Sektorearen inguruko eragile anitzak

Hezkuntza, teknologia, ikerketa, ekoizleak....



Lehen sektore indartsua

Gipuzkoako elikadura jasagarria izan dadin, diziplina anitzeko eragileen parte hartzea beharrezkoa da, haien arteko koordinazioa eta elkarlana ezinbestekoa delarik.



Baserritar Misto Profesionala: Lanaldiak murriztu, baserriko jarduerekin jarraitu ahal izateko

'Baserritar Misto Profesionala' proiektu pilotuaren bidez, enpresako lan-baldintzak lanaldi erdira mugatu ahal izango dira baserriko lanekin jarraitu ahal izateko eta bi jardunak bateragarriak izateko.

Belaunaldien berrikuntza eta erreleboa oinarritzako dira gipuzkoar nekazaritzako elikadura kate osoaren biziraupenerako eta modernizatorako. Gipuzkoako lehen sektorea arriskuan dago eta berarekin gure lurralde oreka, gure paisaiaren zainketa, gure landa eremuko kultura, gure bertako elikagaiak eta klima aldaketari aurre egiteko honek egiten duen ekarpena ere bai.

Hori horrela, Aldundiak beharrezkoa ikusten du nekazaritza-jarduera, natura ingurunea eta giza kapitalaren kontserbazioa bermatuko duten tresna berriak garatzea. Hala, Etorbizuna Eraikizen markoan eta Gipuzkoako Herritarren Batzarrak ezarritako gomendioak jarraituz, 'Baserritar Misto Profesional' proiektua jarri da martxan.

Horri esker, baserritarrek enpresa eta baserriko lana uztartzeko aukera izango dute. Enpresako lan-baldintzak lanaldi erdira mugatu ahal izango dira baserriko lanekin jarraitu ahal izateko eta bi jardunak bateragarriak izateko. Beraien soldataren zati bat baserritik eta beste zatia beste jarduerara batetik lortzeko aukera izango dute. Modu honetan, gaur egungo baserri batzuk, baserri "inproduktibo" izatetik, baserri produktibo izatera pasako lirarteke.

Planteamendu berritzailea denez, 5 urteko esperientzia proiektua garatuko da. Horretarako, urtero diru-laguntza deialdi bat egongo da, baserritar misto izateko prest dagoen langileari eta enpresari zuzendua. Helburua da urtean 30 langile inguru izatea onuradunak, hau da, 5 urtean 150 baserritar misto profesionaletara iristea. Horretarako, urtero 1,8 milioi euro bideratuko da proiektu honetara.






Sektoreko eragileekin eta baserriar interesdunekin proiektuaren inguruan burututako elkarlan bilera.

Basotik Fundazioa basoen kudeaketa jasangarrian lehen urratsak ematen hasi da

300 eskaera baino gehiago jaso ditu Fundazioak eta 2024 urtearen hasieran sinatuko ditu lehen kontratuak

Gipuzkoako basoen kudeaketa jasangarria burutzeko sortu da Basotik fundazio publikoa, egungo basoen abandonuari eta klima aldaketari aurre egiteko helburuarekin. Eta 2023 urtean, fundazioaren sorrera urtea izanik, lan-taldearen osaketak, kontratu ereduak eta lan prozedurak zehaztu dira, besteak beste. Bien bitartean, baso-jabeen lehen eskaerak jaso dira, 300 eskaera baino gehiago, eta lehen diagnostiko eta proposamenak luzatu dira. Gipuzkoako 65 herritan kokatutako 2.200 hektarea baino gehiago aztertu dira, Legazpi (131 ha), Zestoa (101 ha) eta Aia (92ha) izanik hektarea handieneko udalerriak. 2024 urtearen hasieran lehen kontratuak sinatuko dira eta fundazioa baso kudeaketa lanetan hasiko da. Horri esker, lurraldeko basoen CO2 xurgatzeko gaitasuna hobetuko da eta basogintza sektorearen lehiakortasuna indartuko da.



Zer eskainiko dizu Basotik Fundazioak?

BSTK Basotik Fundazioak aukera emango die Gipuzkoako baso jabeei, luraren jabetzari eutsiz, beraien basoak lagatzeko eta zaintza, kudeaketa eta komertzializazioa eskuordetzeko, kontrapartida ekonomiko baten truke.

Halaber, karbono-isuriak konpentsatzeko kredituak erosteko aukera ere eskainiko du Basotik Fundazioak, aztarna ekologikoa murriztu nahi duten enpresa eta sektoreentzat.

Zein onura izango dituzu?

- **Errentagarritasuna:** Basotik Fundazioak errentagarritasuna indartu nahi du eskalako ekonomiaren bidez. Horretaz gain, negozio-bide berriak bilatuko dira, hala nola CO2 xurgatzearen ondoriozko etekin ekonomikoak.
- **Kudeaketa zerbitzua:** Utzi zaizkion basoen kudeaketa osoaz arduratuko da: landatu, garbitu, eraldatu, eta zura eta baso-produktuak merkaturatu.
- **Segurtasuna:** Segurtasun ekonomikoa eta gaixotasunen, faktore meteorologiko txarren edo hondamendi naturalen aurreko berme handiagoak.

Nola eskaini zure lurra Basotik Fundazioari?

Interesa duen edonork **basotik@basotik.eus** helbide elektronikoan edo **943431870** telefono-zenbakian informazio gehiago eska dezake.

Zein izango da prozedura?

- Zerbitzu pertsonalizatua izango da, eta lehenengo urratsa, jabe bakoitzaren gunera hurbiltzea izango da.
- Ondoren, basoaren balioa kalkulatu da faktore desberdinen arabera: tamaina, geruza ezberdinak, luraren ezaugarriak eta ustiategiaren egoera, irisgarritasuna, araudia...
- Baso-jabeari proposamena eta kontratua luzatuko zaio.
- Kontratua sinatuko da eta erregistrotik pasako da.
- Kontratua amaitzean, lurren kudeaketa berreskuratzeko aukera izango du baso-jabeak edo kudeaketa osoa Basotik Fundazioari laga ahal izango zaio.
- Oharra: Kontratua amaitu aurretik bertan behera uzteko aukera ere egongo litzateke.

Baso jabe pribatuak: Basogitza sektorea biziberritzen eta indartzen

Aldundiak basojabe pribatuen baso kudeaketarako inbertsioak babestu ditu jasangarritasun irizpideen arabera zaintza eta mantenua bermatzeko.

Gipuzkoako baso gehienak jabe txikiak kudeatzen dituzte -guztira 10.000 baso-jabe inguru dira lurralde osoan- eta basoen kudeaketa jasangarria bultzatzea da Aldundiaren helburuetako bat. Izan ere, basoak gure ingurumenaren bizkarrezur dira, eta funtzio ekologiko, ekonomiko eta sozial oso garrantzitsuak dituzte, are gehiago bizi dugun klima aldaketaren aurrean. Kudeatutako basoek bertako egurra ekoizten dute, CO2a xurgatzen, atxikitzen eta ordeztzen dute, suteak prebenitzen dituzte, higadura murrizten dute, ura atxikitzen eta arazten laguntzen dute... Horregatik Aldundiak ezinbestekotzat ikusten du basoen kudeaketa jasangarria bermatzea, baso-jabeek egiten dituzten inbertsioak babestuz, eta haien bitartez basoen funtzio ekonomiko, ekologiko eta sozialak bermatuz. Horretarako, Gipuzkoako basoak zaindu, hobetu eta ugaritzeko helburuarekin 3,6 milioi euro bideratu ditu aurtengo Aldundiak.

Suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragin ditzaketen kalteak prebenitzeko, hasierako 3,6 milioi euroko kopuruari, aparteko diru-partida bat gehitu zaio. Honi esker, jaso diren eskaera guztiei erantzun zaie; aurtengo 1.405 eskari izan dira, iaz baino 87 gehiago. Deialdiari esker, basoetan suteak prebenitzeko funtsezkoak diren hainbat lan egitea bultzatu da. Lan gehienak landaketak egitea, sastrakak kentzea eta zuhaitzak inautzea dira, baina beste batzuk ere diruz lagundu daitezke, hala nola inausketa hondarrak kentzea, suebakiak sortzea edo sua itzaltzeko ur puntuak ezartzea.

Halaber, 2023ko deialdiko diru-laguntzen bidez, **Gipuzkoako basoetan, 956,66 ha baso-berritu dira** honako espezie hauekin: Itsas pinua (118 ha), sekuoia (412 ha), bertako haritza (34 ha), pagoa (53 ha) edota kriptomeria (139 ha).

Gipuzkoako basoetara aurtengo bideratu diren laguntzak



3,6 milioi euro

basoak zaindu, hobetu eta ugaritzeko.



339.742 euro

suteek eta natura hondamendiek eragin ditzaketen kalteak prebenitzeko.



Aizkorri-Aratz, Aralar, Pagoeta eta Aiako harria

Gipuzkoako natura parkeak, babestu eta mantendu beharreko altxorra



Aizkorri-Aratz Natura Parkea

- **Azalera:** 15.919 hektarea ditu.
- **Udalak:** Aretxabaleta, Eskoriatza Legazpi, Leintz-Gatzaga, Oñati, Zegama, Zerain.
- **Landareria:** Pagadiak, haritz kandugabezko (*Quercus petraea*) hariztiak, etab. Mendi gailurretan, txilardiak eta otardiak. Kareharrizko haitzetan flora berezia sortzen da; espezie europar hezeek eta espezie atlantikoek osatua.
- **Fauna:** gailurretako uhandrea, belatz handia, sai arrea, belantxiga mokohoria. Baso eremuan lepahoria, ipurtatsa eta basakatua.
- **Jarduera ekonomiko soziala:**
 - » Ustialekuak.
 - » Nekazal-turismoa, landetxea eta landa apartamentuak.
 - » Sagardotegiak.
- **Helburuak:**
 - » Biztanleek baliabide naturalak modu antolatuan erabiltzea. Espezieak eta ekosistemak modu iraunkorrean ustiatuko direla bermatuko da, baita lehengoratu eta hobetu egingo direla ere.
 - » Ekosistema naturalen eta paisaiaren barietatea eta berezitasuna babestea eta interes geologikoko aldeak zaintzea.
 - » Funtsezko prozesu ekologikoak eta fauna eta flora basatiko espezieen habitatak kontserbatzea eta horien dibertsitate genetikoaren bermatzea.
 - » Ondare naturalak duen produkzio-ahalmena kontserbatzea.



Pagoeta Natura Parkea

- **Azalera:** 1.335 hektarea.
- **Udalak:** Pagoetaren Natura parkeko azaleraren % 88 Aia da, Zarautz eta Zestoa gainontzekoa.
- **Landaretza:** hostozabalen basoak nagusitzen dira.
- **Pagadiak eta hariztiak.**
- **Lurraren azala osatzen duten landaretza nagusiak:** eurosiberiarra eta zirkunborealak.
- **Ezaugarria:** Kostaldetik 5 km-ra kokatua, erliebe malkartsua du.
- **Aisialdiko eremuak:**
 - » Iturrarango Informazio Zentroa.
 - » Agorregiko burdinola.
 - » Sagastizabaleko natura eskola.
 - » Lorategi botanikoa, besteak beste.
- **Jarduera ekonomiko soziala:**
 - » Txakolindegia eta sagardotegiak.
 - » Nekazal-turismoa, landetxea eta landa apartamentuak.
 - » Ustialekuak.
- **Helburuak:**
 - » Parkearen eremuan dauden landareria, fauna, gea, paisaia eta gainerako ekosistemak babestu, zaindu eta, behar izanez gero, berrezartzea.
 - » Alde horretako balore naturalen berri izatea eta eraz gozatzea; horretarako hainbat jarduera burutuko dira, heziketa, kultura, olgeta, turismo, gizarte eta ekonomiarekin lotutakoak.
 - » Aldearen garapen soziala eta ekonomikoa, baliabide naturalak era arrazoitsuan erabiliz.
 - » Ekoizpen jarduera tradizionalak, hots, nekazaritzakoak, abeltzaintzakoak eta basokoak, hots, ingurune fisikoaren benetan zaindu eta babestuko dutenak, zaintzea, hobetzea, lehengoratzeta eta ezartzea.
 - » Zientzi ikerketaren sustapena eta funtsezkotzat jotzen diren prozesuen azterketa.

Natura parkeak ondare natural eta kulturala batzen dituzten eremu zabalak dira, eta gizakiaren aktibitate tradizionalekin bateragarriak dira (abeltzantza, basogintza, arrantza, ehiza...). Gipuzkoako lurraldearen %15 baino gehiago hartzen dute. Natura parkeek berebiziko garrantzia dute biodibertsitatea zaindu eta babesteko, mendiko abeltzantza sustatzeko, aisialdirako, ekosistema osasungarrien mantentzeko eta giza ongizatearen sustapenerako. Halaber, ezinbestekoak dira Gipuzkoako oreka berdea mantentzeko, horregatik, lehentasunezko arreta merezi duten espazioak dira.

Hori horrela, natura parke bakoitzak, eremuaren kudeaketaz arduratzen den patronatu bat du. Patronatuak parkearekin lotura duten eragile eta erakunde desberdinek osatzen dutelarik, hala nola, aldundiak, udalek, natura elkarteek edota ehiza eta arrantza federazioek. Patronatuen helburua natura parke bakoitzeko balio naturalak zaindu, bertako gizarte eta ekonomia garatu, eta parkearen ezagutza eta aisialdiko ekintzak bultzatzea da.



Aia Harriko Natura Parkea

- **Azalera:** 6.913 hektarea hartzen ditu.
- **Udalak:** Irun, Oiartzun, Errenteria, Hernani eta Donostia. Parkearen % 80a titularitate publikokoa da.
- **Landareria:** parkean dagoen landaretza gehiena eurosiberiarra eta zirkumboreala da. Espezieak azidofiloak (ph oso azidoetan bizi diren organismoak) dira, oro har, lurzoru karetsu oso gutxi dagoelako, eta euri ugari egiten duenez, zoru garbiketaren ondorioz zorua azidifikatu egiten delako.
- **Fauna:** sai arrea eta belatz handia aurki ditzakegu zeruan hegan, eta muturluzea, bisoi europarra eta izokina ibai ingurunean. Baita untxia eta etze-txinboa (hegaztia). 170 ornodun espezie bizi dira. Parkea hegaztien migrazioa behatzeko tokia da; izan ere, Pirineoan zehar ematen den migrazio-korridorean baitan kokatzen da.
- **Ezaugarria:** Mea zainak direla eta, interes geologikoko gunea da. Horietako batzuk, izan ere, gutxienez erromatarren garaiaiz geroztik izan dira ezagunak eta ustiatuak.
- **Jarduera ekonomiko soziala:**
 - » Ustialekuak.
 - » Nekazal-turismoa, landetxea eta landa apartamentuak.
- **Helburuak:**
 - » Parkearen eremuan dauden flora, fauna, gea, paisaia eta ekosistemak babestu, artatu eta, behar denean, lehengo egoerara itzularaztea.
 - » Aldeko gizarte eta ekonomi alderdiak sustatzea, natur baliabideen arrazoizko erabileran oinarriturik.
 - » Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza izaerakoak izanik, ingurune fisikoa eginkorki zaintzen eta babesten laguntzen duten iharduera emankor tradizionalak hobe, berreskura eta ezar daitezen suspertzea.
 - » Aldeko natur balioen ezagutza eta gozamen erazkoa suspertzea, hezkuntza, kultura, jolas, turismo eta gizarte eta ekonomiarako interesgarriak diren iharduerak burutuz.
 - » Ikerketa zientifikoa eta oinarrizko prozesu ekologikoen azterketa suspertzea.

Aralar Natura Parkea

- **Azalera:** 10.971 hektarea.
- **Udalak:** % 72 Ataungo udala eta Enirio-Aralar Mankomunitatea, eta gainontzekoa Abaltzisketa, Amezketa, Lazkao, Tolosa eta Zaldibia.
- **Natur balio handiko eremuak:** Akaitzeko pagadia, Pardarriko haritza eta Txindoki mendiko flora eta fauna espezie bereziak.
- **Landaretza:** Baso mota hedatuena pagadia da, eta azidofiloa zein basofiloa kontuan harturik, parkeko eremu osoaren % 25 estaltzen du.
- **Fauna:** Aralarko Parke Naturelean 147 espezie ornodun bizi dira.
 - » Ganadua dabilen alderdien gainetatik sai arrea, sai zuria, ugatza eta arrano beltza ikus daitezke.
 - » Erreketatik gertu espezie babestuak dabilta, hala nola, bisoi europarra.
 - » Basoetan, orkatz eta basurde ugari daude.
 - » Aralarren bizi diren espezie asko babes erregimenean daude.
- **Jarduera ekonomiko soziala:**
 - » Ustialekuak.
 - » Nekazal-turismoa, landetxea eta landa apartamentuak.
- **Helburuak:**
 - » Parkearen eremuan dauden flora, fauna, gea, paisaia eta ekosistemak babestu, artatu eta, behar denean, lehengo egoerara itzularaztea.
 - » Aldeko gizarte eta ekonomi alderdiak sustatzea, natur baliabideen arrazoizko erabileran oinarriturik.
 - » Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza izaerakoak izanik, ingurune fisikoa eginkorki zaintzen eta babesten laguntzen duten ekoizpen iharduera tradizionalak hobe, berreskura eta ezar daitezen suspertzea.
 - » Aldeko natur balioen ezagutza eta gozamen erazkoa suspertzea, hezkuntza, kultura, jolas, turismo eta gizarte eta ekonomiarako interesgarriak diren iharduerak burutuz.
 - » Ikerketa zientifikoa eta oinarrizko prozesu ekologikoen azterketa suspertzea.

Life Coop Cortaderia, un nuevo proyecto que erradicará el plumero de pampa en Gipuzkoa

La Diputación prevé que para el 2029 el plumero de pampa se habrá erradicado en el territorio

El proyecto Life Coop Cortaderia supone una nueva línea de actuación para erradicar la *Cortaderia selloana* en Gipuzkoa. Los trabajos comenzarán a finales del 2023 y tendrán una duración de seis años en los cuales se ejecutarán diferentes líneas de actuación como la gestión y coordinación del proyecto, la mejora de la gobernanza público-privada, el control y extracción de la especie, la sostenibilidad, la replicación y utilización de los resultados obtenidos y la monitorización y evaluación del proyecto. Además de las zonas de actuación priorizadas en el proyecto (Ulía, Jaizkibel, Txingudi-Bidasoa, Paisaje Natural Protegido de Deba-Zumaia, Iñurritza, Ría del Oria, ríos Urola y Deba, Conurbación Donostia-Irun), la intervención de control se extenderá por todo el territorio, y para ello se destinarán 283.900 euros.

La *cortadera selloana*, más conocida como plumero de pampa, se detectó por primera en la península en la década de los 50. Aunque inicialmente sus hábitats eran marginales, poco a poco recurrió a hábitats semi-naturales de gran interés ecológico, llegando a amenazar a ecosistemas primarios como marismas, dunas, brezales naturales, acantilados marinos... Para hacer frente a este problema, hace más de quince años, la Diputación comenzó a combatir dicha especie con los medios y conocimientos a su alcance. El proyecto Life Coop Cortaderia supondrá un nuevo paso en la eliminación de la especie.

Flora invasiva en Gipuzkoa

Es difícil determinar cuántas especies invasoras hay en Gipuzkoa, ya que no todas son reconocibles y muchas de ellas son difíciles de clasificar. En cualquier caso, se puede determinar que en la CAV hay unas 500 especies que no son autóctonas y que se han neutralizado en nuestro territorio. Estas representan un 20% de la flora total, de los cuales 20 especies son de carácter invasor.

La Diputación lleva 15 años luchando contra la plaga de flora invasiva. En este sentido, la colaboración con otros agentes y entidades ha sido crucial para hacer frente a diferentes plagas. Son varias las iniciativas que la Diputación tiene en marcha para hacer frente a las plantas invasoras, como por ejemplo, la eliminación de la *Buddleja davidii* en todo el territorio, la erradicación del arbusto *Beccharis halimifolia* en las marismas y estuarios de Gipuzkoa o la exterminación de la *Fallopia japonic* en los cauces de los ríos Urola, Deba y Urumea.

Las consecuencias de las especies invasoras en Gipuzkoa

Supone efectos adversos sobre la biodiversidad y funcionamiento que prestan los ecosistemas.

Desde hace más de 15 años, la Diputación está desarrollando actuaciones encaminadas al control de aquellas especies invasoras de carácter prioritario para el territorio. Estas prioridades se han determinado en función del grado de dispersión de la especie, el nivel de incidencia sobre los ecosistemas y la importancia de dichos hábitats, así como la capacidad técnico-científica y económica de abordar actuaciones eficaces y eficientes contra ellas.

Las especies de fauna más invasoras de Gipuzkoa



Visón americano

La Diputación lleva años trabajando en el seguimiento y control de la presencia del visón americano. Con el nuevo proyecto Life Lutreola, los trabajos de eliminación del visón americano se han intensificado y se han obtenido muy buenos resultados gracias a la utilización de una nueva metodología de detección y trapeo: las plataformas flotantes. Con estas plataformas, se han conseguido capturar cerca de un centenar de visones americanos en los últimos cuatro años.



Coipú

En 2006 y 2007 se constató su presencia en los ríos Bidasoa, Urumea, Oiartzun, en el arroyo Jaizubia y en las zonas húmedas costeras que bordean la Bahía de Txingudi. Para combatir esta especie, anualmente se realizan búsquedas activas de nuevos tramos y la captura de los animales mediante jaulas trampa de una sola entrada cebadas con manzana. En la campaña realizada en el año 2022 se actuó en 14 localidades (10 tramos fluviales y 4 zonas húmedas) y se capturaron 41 coipús.



Rata almizclera

Durante 2007 y 2008 su presencia se hizo notar mediante la construcción de 16 grandes refugios flotantes en el humedal de San Joakin (Jaizubia). Fue el momento de mayor densidad poblacional detectada. El impacto que produjo en la población la captura de una veintena de individuos (en 2007-08) y la destrucción sistemática de los refugios que después han ido construyendo ha conducido a que su número en los resultados de los trapeos de las últimas campañas sea muy bajo. En los últimos 11 años se han capturado 14 animales.



Avispa asiática

Desde el año 2010, la avispa asiática está causando uno de los mayores perjuicios en toda la cornisa cantábrica. Los problemas provocados han sido diversos: socioeconómicos, de biodiversidad y de salud pública. En el año 2015 la Diputación puso en marcha un protocolo para hacer frente a la especie y todavía hoy continúa. En el 2022 se desactivaron 1.445 enjambres.



Tortuga de Florida

Debido a la suelta incontrolada de esta especie, han provocado daños en los ecosistemas locales y se han convertido en especie invasora. La Diputación lleva años realizando campañas contra dicha especie. En la campaña del 2023 se colocaron 12 trampas en Plaiaundi y gracias a ello, se capturaron un total de 130 galápagos de florida, siendo el 37% de las capturas en nidales y el 63% en la laguna.

“ Las especies invasoras son la segunda mayor amenaza para la biodiversidad, después de la pérdida de los hábitats naturales. Por ello, seguiremos dando pasos firmes en la preservación de entornos protegidos”.

Xabier Arruti Olazabal
Diputado de Equilibrio
Territorial Verde



ITZULBIDEA

Arinegi goaz, hitzaren bi zentzuetan: batetik, azkarregi, abiadura eroan, ziztu itogarrian; bestetik, gure urratsei behar besteko sakontasunik eman gabe, gogoetetan behar beste pausatu gabe. Abiadura mantsotzea eta urrats bakoitza hausnartzea ezinbesteko neurriak izango dira etorkizun jasangarriranzko bidean.

Gaur egun mundua bera dugu azoka, ez dago neurri logikorik, muga zentzuzkorik. Euskal herritarrok eskura dauzkagun produktuekin, gure lehen sektoreak damaigun kalitate gorenarekin, ulertezina eta jasanezina da Amerikako eta beste hainbat muturretako barazkiak eta fruituak kontsumitzea. Zentzurik gabeko zantzuak, bururik gabeko helburuak. Zero km filosofia garatu beharrea, eguneroko praktika eta kontsumo-ohiturekin milaka kilometrora ekoiztako jakiei egiten diegu leku gure mahaietan. Kalitateari bizkar emateaz gain, klima aldaketa sustatu eta indartu besterik ez dugu egiten jardunbide horiekin. Gure luditxo hau gero eta bizileku bortitzagoa da, eta lehen sektoreak larrutik ordaintzen eta ordainduko ditu aldaketok. Ekoizpen neurrigabea ahalbidetzen duten jokabideek mundu osoko laborariei eragiten diete, ez da inor libratuko gainbehera suntsikor horretatik. Ondoen prestatuta daudenek ere gorriak ikusi behar. Geure jardunbideen biktima izatera kondenatuta gaude guztiok.

Lehen sektoreak ematen dio lurrari bizia, gutariko bakoitzari dagokigu lehen sektoreari arnasa ematea. Geureari, hemengoari, bertan sustraitutakoari. Garaian garaikoa eta tokian tokikoa lehenesten ez badugu, garairik eta tokirik gabe geratuko da gure zibilizazioa. Inoizko aurrerapenik handieneko gizaldian, itzulbiderik gabeko estratan sartu aurretik erreakzionatuko ahal dugu!

Xabier Euzkitze

Una de las causas de la baja productividad de las plantaciones de manzano de sidra de Gipuzkoa es debido a problemas con la polinización.

Un estudio de colaboración con la Universidad Pública de Navarra que tiene como objetivo determinar cuáles son las causas que inciden en la baja productividad media de las plantaciones de manzano en el territorio, determina que este fenómeno se debe a que se desconoce el grado de compatibilidad entre las variedades más cultivadas por los productores, así como el grado de autofertilidad y la viabilidad de su polen. Es preciso también determinar el nivel de coincidencia de sus periodos de floración fecundación, y de la densidad de polinizadores necesaria.



Representantes de la Diputación han estado en Irlanda conociendo sistemas alimentarios sostenibles para integrarlos en Gipuzkoa.

Han mantenido varias reuniones con las delegaciones de Irlanda y Eslovenia, y responsables del Climate-KIC. En ellas, han presentado la Misión de Alimentación Sostenible de Gipuzkoa. Trabajamos para garantizar la competitividad del sector primario. El objetivo es garantizar la competitividad del sector primario y que Gipuzkoa cuente en 2040 con un sistema de alimentación sostenible, saludable, accesible y competitivo.

Aldundiko ordezkariak Londresen izan ziren, Euskal Herriko produktuak saltzen eta kontsumitzen dituzten hango eragileen esperientzia ezagutzeko.

Bidaia honen xedea zen Gipuzkoa beste merkatuetara eramatea eta euskal produktuak banatzen eta merkaturatzen dituzten eragileekin harremanak sortzea, elkarrekin gure kulturari eta produktuei buruzko kontakizuna eraikitzeke.

Ezinbestekoa da herrialde aurreratuak egiten ari direna aztertzea, eta landutako hori Gipuzkoan txertatzea lehen sektorearen etorkizun duin bat bermatzeko eta Gipuzkoa aitzindari bat eraikitzeke, oreka berdean oinarrituta.





Igaraba Gipuzkoako ibai arro guztietara zabaldu da.

Basa Animalien eta Landareen Zerbitzuak egindako jarraipenak espezie mehatxatu hori berreskuratu eta ugaltzen ari dela egiaztatu du.

Muniozguren gaztandegiaren “Larruz” ahuntz gazta izan zen Euskal Herriko gazta eta esneki mota guztien lehiaketaren irabazlea Esneki azokan.

Euskal Herriko XIV. Frisoi Txapelketan, Karrantzako Casa Nuevaren behia izan zen irabazlea.



Azaroaren 30etik abenduaren 2ra arte V. Sagardo Forumaz gozatzeko aukera izan zen. Sagarrari, sagardoari eta turismoari buruzko hainbat jardunaldi ospatu ziren.

Nazioarteko Sagardo azokan, munduko hainbat lekutatik iritsitako sagardoak dastatu ziren, eta, Nazioarteko Sagardo lehiaketan Suediako Pomologik izan zen irabazlea.

Segurako Ondarre Gaztandegia izan zen Ordiziako 50. Gazta Txapelketaren irabazlea.

Ordiziako 50. Idiazabal Gazta Lehiaketa azken hamar urteetan hirugarren aldiz irabazteagatik, Urrezko Garaiak ere lortu zuen Ondarre Gaztandegia.





Zapiain Sagardotegia izan zen XXII. Gipuzkoako Sagardo Lehiaketaren irabazlea.

Epaimahaiak Zapiain Sagardotegiak egiten duen sagardoaren kalitate analitiko eta organoleptikoa jarri zituen balioan.

Bi eguneko egonaldia burutu dute Nafarroan GazteNek programako gazteetako batzuk, hauen monitoreek eta Aldundiko ordezkariak.

Etxarri Aranatz, Amaiur eta Almandozeko hainbat gazteren ustialeku eta proiektuak (sagarrondoak, haragitarako behiak, Euskal Txerria, zatikatze-zentroa... besteak beste) ezagutu dituzte. Egonaldi bikaina eta aberatsa izan zen.



Basabizi zentroa ezagutu zuten Gipuzkoako Batzar Nagusietako ordezkariak.

Gaur arte 589 animalia artatu dira zentroan eta sartu diren animalien ia % 60 sendatu eta natur ingurunera itzuli da.

Natura ingurunea eta biodibertsitatea zaintzea ezinbestekoa da gure etorkizuna eraikitzeko. Lehen hala zen, eta orain are gehiago, klima aldaketaren testuinguruan.


Foodelivery, elikadura-erosketen banaketek ingurumenean duten eragina neurtzen duen ikerketa.

Azterlanean jaso diren datuen arabera, hurbileko merkataritzan, "Click & collect" da ingurumena gehien errespetatzen duen erosketa metodoa; beti ere, desplazamenduak oinez egiten badira.

Etorkizuna Eraikiz programaren baitan, Aldundiak bultzaturiko lankidetzeta-proiektua da, eta Elikaduraren, Ingurumenaren, eta, Mugikortasun eta Logistikaren euskal klusterrek jarri dute martxan.



Gipuzkoako Foru Aldundiko atekak zabalik



INFORMAZIO BULEGOA ETA ERREGISTROA

TELEFONOA	TELEFONOA	ESKAKIZUNAK	HELBIDEA	ORDUTEGIA
943 112 198	943 431 154	Gertubide	Gipuzkoa plaza z.g., laugarren solairua. 20004, Donostia	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara

HERRIA	TELEFONOA	HELBIDEA	ORDUTEGIA	EMAILA
Azpeitia	943 415015 943 415016	Julian Elorza 3, behea. 20730, Azpeitia	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_azpeitia@gipuzkoa.eus
Bergara	943 415068 943 415065	Urteaga 21, behea. 20570, Bergara	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_bergara@gipuzkoa.eus
Elgoibar	943 415079 943 415077	Kalebarren, 1-2. 20870, Elgoibar	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_elgoibar@gipuzkoa.eus
Hernani	943 415086 943 415087	Ibaiondo poligonoa 27, 2. pisua. 20120, Hernani	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_oiartzun@gipuzkoa.eus
Ordizia	943 415099 943 415100	Santa Maria 4, behea. 20240, Ordizia	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_ordizia@gipuzkoa.eus
Tolosa	943 415127 943 415121	Nafarroa Hiribidea 6-2. 20400, Tolosa	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_tolosa@gipuzkoa.eus
Zarautz	943 415147 943 415148	Mitxelena 87. 20800, Zarautz	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_zarautz@gipuzkoa.eus

Gipuzkoako parketxe sarea

Helbidea: 20567 Aranzazu, Guipuzkoa
Telefona: 943 78 28 94
Webgunea: gipuzkoanatura.eus

Etorlur

Helbidea: 1, Ibaiondo Ind., 27, 20120 Hernani
Telefona: 943 33 75 56
Webgunea: etorlur.eus

Basotik Fundazioa

Email: basotik@basotik.eus
Telefona: 943 43 18 70
Webgunea: gipuzkoa.eus/basotik



**Aldizkariaren bertsio
digitala kontsultatu:**

www.gipuzkoa.eus/eu/web/landaeremua/aktualitatea/argitalpenak

Harremanetarako: **gurelurra@gipuzkoa.eus**

Hurrengo aleak emailez jaso nahi dituzu?

Lagundu iezaguzu paperaren erabilera murrizten. Gure Lurra aldizkariaren hurrengo aleak email bidez jaso nahi badituzu, bidali iezaguzu mezu bat. Postaz jasotzeko zerrendatik kendu eta email bidez jasotzekora gehituko zaitugu.

Gure zerrendetatik baja eman

Aldizkaria Gipuzkoako lehen sektoreko eragile eta ustialekuen jabeei dago zuzendua. Zu zerrenda horretan zaitugulako jaso duzu aldizkaria. Dena den, ez baduzu aurrerantzean jaso nahi aukera duzu baja emateko, goian aipaturiko helbidera idatziaz.

Gure zerrendetan alta eman

Gure Lurra Aldizkariaz gain, Gipuzkoako Landa Inguruneko sailetik aldikako komunikazio ekintzak burutuko dira. Zure email edo/eta telefonoa bidali iezaguzu hartzaileen artera gehitu zaitzagun.

NEKAGIP APP

Lehen sektorearen inguruko albisteak, tramiteak eta dirulaguntzak uneoro eskura zure mugikorrean.

Zerbitzuak:

Animalien identifikazio, errolda liburu eta behi aziendaren erregistroa.

Ustategietako informazio orokorra.



Available on the
App Store



GET IT ON
Google Play